



Gerardo Markuleta, atzo, Donostian, bere bosgarren poesia liburuaren aurkeztean. GORRKA RUBIO / ARGAZKI PRESS

Oroimenari pisu doia emanez

Geratzen zaiona baino denbora gehiagoz bizi izan denez, Gerardo Markuleta haurtzaroaz, nerabezaroaz eta iragan kolektiboaz mintzo da 'Denbora bere lekura' poesia liburuan

Igor Susaeta Donostia

Luisa Villalta poeta eta musikari galiziarra zenak zera esan zion behin Gerardo Markuletari (Oñati, Gipuzkoa, 1963): «Bere iragana ahazten duena putakume bat da». Markuletak pentsatzen du

Villaltak, agian, arrazoi zuela. Dena den, *Denbora bere lekura* (Erein) poesia liburuaren asmoa ez da gogorapenak ezabatzea, ezkututzea, ezta lurperatzea ere, egilearen esanetan. «Ez naiz ahazteaz ari, edo bizi izandakoa bazter batean uzteaz». Ez. Mar-

kuletak bere pisu doia eman nahi izan dio gogoratutako horri. Izan ere, iragana, denboraren joana, traba astunegia gertatu zaio urte askoan eguneroko bizitzan. «Nire nahia izan da bizi izandakoari bizitzeko traba izaten ez uztea, eta iragandako denbora bere

lekuan jartzea, horixe. Uste baitut iraganak, batzuetan, gehiegizko pisua hartzen duela gure bizitzan, gure denbora presentean». Hori bai, gomutez mintzo arren, helburua ez da nostalgia, «zenbaitza» baizik.



Uste dut iraganak, batzuetan, gehiegizko pisua hartzen duela gure bizitzan, gure denbora presentean»

«Labur arituz gero, luzeran ezin denez, sakontasunean eta oihartzunetan zabaldu behar dira hitzak»

Gerardo Markuleta
Poeta

Eta zenbaketa horretan, bere bosgarren poesia liburuan, haurtzaroaz mintzo da, nerabezaroaz «gatazkatsuz», gaztaro «gora-beheretsuz», iragan kolektiboaz eta amodioaz, besteak beste. Azkeneko hamar urteotan izkiriaturako 50 poema bildu ditu, «tan-kerak, itxura eta luzera ezberdinekoak». Eta ez da kasualitatea 50 izatea. «Mende erdi bete duzue-nean, garbi ikusten duzu aurrean geratzen zaizuna baino denbora gehiago utzi duzula atzean», nabarmendu zuen atzo, Donostian, liburuaren aurkezpenean. Haren asmoa zen 50 urte betetzerakoan kaleratzea, hau da, orain bi urte, baina, hainbat kontu dela eta, orain arte atzeratu da argitalpena.

Lau ataletan banatu du liburu, baina iruditzen zala poema guztiak doinu bakar batek, asmo jakin batek eta, «batez ere», testuak tolesteko molde pertsonal batek batzen dituela.

Lehendabizikoan, Oñatin pasatutako haurtzaro eta nerabezaroa ditu hizpide –aspalditik bizi da Gasteizen–. *Neskak mojetara, Kuartel ederra, Irrati gau magikoak* eta *Aitaren keak* dira horko poemetak batzuen izenak. *Pi-nudia* izenekoak zabalzen du liburu. Markuletaren iritziz, gainera, lehen aleak argibide batzuk ematen ditu, liburuaren irakurri behar den, «gozamen handia hartzeko nola irakurri daitekeen» azaltzen dutenak. «Umetako pasaisa bat deskribatzen dut, baina, deskribapenarekin batera, sumoa sortzen da poeta, gainera, beste zerbaiti buruz ari dela».

Beste lehenaldi bat kontatzen du bigarren goan, *Ezkutuko tiradera* izenekoan; iragan kolektiboarena, alegia. «Iraganak euskaldun guztioi bizkarrean ezarri digun beste zama bat». Markule-

taren hitzetan, soziologoen «bor-txa identitarioa» deitzen diote, kazetariak «gatazka», eta «gure Iban Zaldúa maiteak: *La Cosa*». Bada, adibidez, poema «gogor samar bat», *Esan ezetz*, 2004ko martxoaren 11n Madrilen gertaturiko atentatuari buruzkoa, egileak «sendagarria izateko esperantzarekin» idatzitakoa.

Aitzari japoniarra izeneko hirugarren atalean, labor jokatzeko ahalegina egin du; zalea da, gainera. «Berba gutxi daukazue, elkarren ondoan jartzera-koan erabateko doitasunez aukeratu behar dituzu». Labor aritzea erabakiz gero, luzeran ezin denez, «sakontasunean eta

oihartzunetan» zabaldu behar dira hitzak. Markuletaren aburuz. Atal horretako ale gehienak «haiku mendebaldarren tankerakoak» direla pentsatzen du. «Izan ere, ez gara gauza japoniarren mailako haikuak idazteko».

Amodiozkoekin harrituta

Biok egur, biok su azken atalekoak «amodiozko poemak» dira. «Edota kontzeptuarekin antz gehien izan dezaketen testuak, behintzat». Horiek bildu zituzte-nean, harrituta geratu zen. «Amodiozko anti-poema asko idatzitakoa naiz; hau da, amodiozko poema topiko-tipikoen kontrakoak, eredu erromantiko nazkagarri samar horri aurre egiten diotenak», azaldu zuen Markuleta, atzo, umorez. Ezustean harrapatu dute testu horiek, «ia-ia ezkontz-poemak» direlako. «Baina horiek osatzerakoan ez dut umore puntua galdu».

Egileak atzo gogorazi zuenez, Iñaki Aldekoa Ereineko editoreak adierazi izan dio «poema estrofi-ko eta neurtuetan» ematen duela bere onena. Markuletarentzat, baina, euskal poeta modernoek bertsoaritzatik aldentzeko arazoak dauzkate poema neurtu eta errimatuak ontzerakoan. «Edo oso errima berezi, landu eta finak erabiltzen dituzu, edo oso bertso itxurakoa izango da bestela».

Denbora bere lekura bosgarren poesia liburu du, *Larrosak noizean behin* (Erein, 1990), *Sagarren hausterrea* (Erein, 1994), *Batakez du bestea kentzen* (Alberdania, 2003) eta *Ezjakintasunak* obren (Alberdania, 2006) ondotik. Poesia itzuli du gaztelaniara, eta euskarara ekarri ditu Julio Cortázar, Jean Echenoz, Samuel Beckett eta Françoise Sagamen lan batzuk, besteak beste.